

OÑATIKO UDALA

Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez emateko 2021eko deialdia. BDNS (Identif.): 549033

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/549033>)

2019ko otsailaren 28an izandako Udal Plenoan onartutako eta 2019 martxoaren 22an Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (56 zkia.) argitaratutako «Oñatiko Udalak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako emango dituen dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez emateko oinarri arautzaileak» xedatutakoaren arabera: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko otsailaren 4an egindako bileran, besteak beste,

ERABAKI DU

Onartzea aipatutako dirulaguntzen 2021eko deialdia

1.- Finantziarioa

1.1. Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntzak. 2021eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira ehun eta hamar mila euroko (110.000,00 €) gastua baimentzen da, 0391.481.231.60.01 kontu sailaren kargura.

1.2. Garapenerako sentsibilizazioa edo/eta hezkuntzako jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak. 2021eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hiru mila euroko (3.000,00 €) gastua baimentzen da, 0391.481.231.60.01 kontu sailaren kargura.

AYUNTAMIENTO DE OÑATI

Convocatoria de 2021 para la concesión por parte del Ayuntamiento de Oñati de subvenciones para la cooperación internacional al desarrollo, mediante el procedimiento de concurrencia competitiva. BDNS (Identif.): 549033

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/549033>.

De acuerdo con la «Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Oñati de subvenciones para la cooperación internacional al desarrollo, mediante el procedimiento de concurrencia competitiva» aprobada por acuerdo Plenario de fecha 28 de febrero de 2019 y publicado en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 22 de marzo de 2019 (n.º 56): La junta municipal de Gobierno celebrada el 4 de febrero de 2021, entre otros

ACUERDA

Aprobar la convocatoria para las subvenciones de 2021

1.- Financiación.

1.1. Subvenciones para el desarrollo de proyectos de cooperación en países en vías de desarrollo. Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2021, se autoriza un gasto por importe total de ciento diez mil euros (110.000,00 €), con cargo a la partida 0391.481.231.60.01.

1.2. Subvenciones destinadas a financiar actividades de sensibilización y/o educación para el desarrollo. Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2021, se autoriza un gasto por importe total de tres mil euros (3.000,00 €), con cargo a la partida presupuestaria 0391.481.231.60.01.

1.3. Larrialdiko edo/eta laguntza humanitarioko egitasmoak finantzatzeko dirulaguntzak. 2021eko aurrekontu ekitaldiari dagozkion lagun tze tarako, guztira hamabi mila euroko (12.000,00 €) gastua baimentzen da, 0391.481.231.60.01 kontu sailaren kargura.

2. 2021 urteko eskaerak aurkezteko epea.

2.1. Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzazko proiektuak garatzeko dirulaguntzak lerroari dagokienean, 30 egun naturaleko epean, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

2.2. Garapenerako sentsibilizazioa edo/eta hezkuntzako jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak lerroari dagokionean, 2021eko abuztuaren 31a arte, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

2.3. Larrialdiko edo/eta laguntza humanitarioko egitasmoak finantzatzeko dirulaguntzak lerroari dagokionean, 2021eko azaroaren 30a arte, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

3. Erabaki honen bidez onartutako deialdiak eragina izango dute Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik aurrera. Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak erabaki honen aurka zuzenean Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik Berraztertze Hautazko Errekurtsoa aurkezteko Gobernu Juntari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

1.3. Subvenciones destinadas a financiar proyectos de emergencia y/o ayuda humanitaria. Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2021, se autoriza un gasto por importe total de doce mil euros (12.000,00 €), con cargo a la partida presupuestaria 0391.481.231.60.01.

2. Plazo de presentación de solicitudes en el año 2021.

2.1. En lo que respecta a la línea de subvenciones para el desarrollo de proyectos de cooperación en países en vías de desarrollo, en el plazo de 30 días naturales a contar desde el día siguiente al de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2.2. En lo que respecta a la línea de subvenciones destinadas a financiar actividades de sensibilización y/o educación para el desarrollo, hasta el 31 de agosto de 2021, desde el día siguiente al de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

2.3. En lo que respecta a la línea de subvenciones destinadas a financiar proyectos de emergencia y/o ayuda humanitaria, hasta el 30 de noviembre de 2021, desde el día siguiente al de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

3. La convocatoria aprobada mediante el presente acuerdo surtirá efectos desde el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación. No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, 2021eko otsailaren 12a. Alkatea.

Diligentzia: Iragarkia 2021eko otsailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman da (38 zkia) eta laguntza eskaerak aurkezteko epea bukatzen da.

1.1.. Garapen bidean dauden herrialdeetan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntzak: martxoaren 29an

1.2 Garapenerako sentsibilizazioa edo/eta hezkuntzako jarduerak finantzatzeko dirulaguntzak. Abuztuaren 31an

1.3.- Larrialdiko edo/eta laguntza humanitarioko egitasmoak finantzatzeko dirulaguntzak. Azaroaren 30ean

Oñati, a 12 de febrero de 2021. La alcaldesa.

Diligencia: El presente anuncio se ha publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 26 de febrero de 2021 (nº 38) y el plazo para presentar las solicitudes finaliza

1.1.- Subvenciones para el desarrollo de proyectos de cooperación en países en vías de desarrollo el 29 de marzo

1.2.- Subvenciones destinadas a financiar actividades de sensibilización y/o educación para el desarrollo el 31 de agosto.

1.3.- Subvenciones destinadas a financiar proyectos de emergencia y/o ayuda humanitaria el 30 de noviembre.

Oñatin, 2021eko otsailaren 26an.
Udal Idazkariak